

SUPER LONJER

ADI EGON!
EN VUESTRA
LONJA


**GASTEIZEN GAZTEEN LONJAK
KUDEATZEKO GUTXIENeko
GOMENDIO BATZUK**



SUPER LONJEZ

Lonjak lagunen arteko topagune eta aisialdirako lekuak dira. Ez dago gazteen lonjei buruzko udal araudirik, bete beharreko eskakizunak eta gutxieneko baldintzak azaltzen duenik.

Jarraian gomendio batzuk aurkeztuko dizkizuegu lonjaren esperientzia ahalik eta seguru eta abegikorren izan dakizuen, bai zuen zeuen arteko harremanean, baita bizilagunekikoan ere.




LONJAK EZ DIRA ETXEBIZITZA

Lonjak ez dira inoren etxebizitza, ez ohiko bizileku kontsideratzen; beraz, ezin du inork erroldan alta eman lonjetan, eta ezin liteke berrietan lo egin.

ITURRIKO URA

Lonjak **iturriko ura** izan behar du nahitaez –gutxienez iturri bat–, erabiltzaileen higie-ne eta kontsumo-beharrei erantzuteko.

SUPER LONJEZ



ARGINDARRA

Argindarraren instalazioa egoera onean egon behar du, erabilgarri; beraz, instalatzaile baimendu baten **agiria** izan behar du. Eskatu egiozue etxejabeari alokairu kontratua sinatu aurretik.

Larrialdiko argiak izan behar ditu; aukeran, gela guztietan, baina hori ezin bada, bai gutxienez bat lonjan sartu eta irteteko atearen gainean.

Sua pizteko argiztapen sistemarik **ez erabiltzea** gomendatzen da (kandelak, su-garrak sor ditzakeen beste edozein), soilik elektrizitate bidezko argiak erabiltzea.

SUKALDEA

Txoko eta elkarte gastronomikoentzako berariazko araudia dago, zeinean sukaldea erabiltzea baimentzen zaien. Alabaina, lonjak ez dira ez txoko eta ez elkarte gastronomiko; beraz, honakoak hartu behar dira kontuan, gerta daitezkeen arriskuen prebentzioaren aldetik:

- Lonjak ezin izango du sukalderik izan; lonjan ezin da sukaldatu.
- Eraman itzazue aldeztuta aurretik prestatuta lonjan kontsumitu nahi duzuenak.
- Janariren bat berotu nahi baduzue, erabili ezazue mikro-uhin-labea, baina **inolaz ere ez sukalderik, plakarik, surik edo su txikirik.**

SUPER LONJEZ



SUTEEN PREBENTZIO-RAKO NEURRIAK

- Izan ezazue **su itzalgailu** homologatua (gutxieneko eraginkortasuna: 21A - 113B).
- Ez ezazue inolaz ere likido sukoirik (butano bonbonak..), ez material erregairik (aldizkari eta egunkariak, behar ez dituzuen altzariak...) pilatu.
- Ipin ezazue lokal barruko edozein lekutatik irteera erraz topatzen laguntzeko seinaleztapena. Irteera lokaleko edozein tokitik ikusteko moduan baldin badago, nahikoa izango da ate gainean **SALIDA** edo **IRTEERA** idatzita duen seinale fotoluminiszente bat ipintzea.
- Lonja sektorizatuta egon behar da.
- Horrek lonja lokal eta etxebizitza mugakideetatik behar beste isolatuta dagoela esan nahi du, surik izanez gero, sua edo gasak besteren lokalera igarotzea galarazteko adina isolatuta.
- Lonja jakin bat nahikoa sektorizatuta dagoela jotzeko, hodi guztiak –bertikal eta horizontalak– egoki itxita egon behar dute, bai eta sabaiko forjatua eta beste lokal eta etxebizitzekiko elementu mugakideak suaren kontra babestuta.



SUPER LONJEZ



LOKALAREN EDUKIERA

Edukiera une jakin batean lokal jakin batean egon daitekeen gehieneko jende kopuruaren neurria da.

Edukierak **25 pertsonako** muga ez gainditzea gomendatzen di-zuegu.

Arazoak saihesteko, lonja barruan edukieraren arabera onartutako jende-kopurua baino pertsona gehiago ez dagoela zaintzeaz arduratu beharko da norbait, batez ere festetan eta, oro har, jende asko biltzen zaretenean.

SARBIDEA, SARTU ETA IRTETEKO ATEAK

Lonjek **sartzeko lehen ate** bat izaten ohi dute, gehienetan metalezkoa, pertsiana modukoa edo irristatzailea.

Horren ondoren, bigarren ate bat egon behar da, erraz irekitzekoa eta, aukeran, “kanporantz” irekitzekoa.

Bigarren ateak itxita baina erraz irekitzeko moduan egon behar du, eta lehena irekita; hartara, larrialdiren bat gertatuz gero azkar atera ahal izango da barruan dagoen jendea.

Eta, bide batez, horrela saihestu egiten dira bizilagunak gogaitu egin ditzaketzen zaratak; ez delako pertsiana etengabe ireki eta itxi beharrik.

Sarrera-irteerak altzaririk eta jende multzorik gabe egon behar du beti.

Barruan jenderik dagoen bitartean, irteteko ateak erraz irekitzeko moduan egon behar dute, giltzaren beharrik gabe irteteko moduan alegia.

Edonola ere, komenigarria da betiere erraz ikusteko moduko eta denek dakiten leku batean **giltza** batzuk uztea.

SUPER LONJEZ

BEROKETA SISTEMA

Berogailua elektrizitate bidezkoa bada, entxufeak **beretzko** etengailu diferentziala eduki behar du elektrizitate-koadroan, eraiki-naren gainontzekotik aparte.

Berogailua gas bidezkoa bada, **aireztapen sistema naturala** izan beharko du lonjak.

Edonola ere, gailu nahiko berriak eta homologatuak erabiltzea gomendatzen da; funtzionamendu egokiaren berme handiagoa izango duzue, eta istripuak izateko arrisku txikiagoa.



GARBIKETA ETA HIGIENEA

Lokalaren garbiketari dagokionez, gutxieneko batzuk bete behar dira nahitaez:

Komuna:

- Lonjak **konketa eta komuna** izan behar ditu, egoera onean.

Barrualdea:

- Ez lonja barruan **zaborrik** pilatu.
- Aireztatu lokala aldika-aldika, usain txarrak ekiditeko.

Kanpoaldea:

- Lonjaren **kanpoaldea** eta inguruak **garbi** eta baldintza higieniko egokietan eduki behar dira, zarama edo janari arrastorik gabe.



- Lonjako **altzariak** bertatik bota nahi izatera, deitu tresna eta tamaina handiko hondakinak biltzeko udal zerbitzura, eta egun eta ordu jakin bat emango dizuete hitzordu, pasa eta jaso ditzaten.

Telefonoa: 945 250345, **hondakinen bilketa pneumatikoa dagoen alderdian** (Hirigune Historikoa, Ibaiondo, Salburua, Zabalgana). 945 286500, **hiriko gainerako alderdian**.

Garbiketa:

- Garrantzitsua da **den-denek** har dezazuen lokala garbi edukitzearen ardura.

SUPER LONJEZ



ZARATAK

Zarata da bizilagunekin bizi-kidetza arazo gehien sor dezakeen arrazoietakoa bat; beraz, zarata gogaikarriak ez sortzeko oso kontuan hartu behar da –eta zaindu– bai zarataren **boluena**, baita zarata hori **zein orduetan sortzen den**.

Musika ekipo eta telebistei dagokienean:

- **Ez gaingitu** Zarata eta dardarei buruzko udal ordenantzak etxebizitzetarako normaltzat jotzen duen **dezibelio-muga** (dB):

07:00etatik 22:00etara, 32dB-A

22:00etatik 07:00etara, 25 dB-A

- **Aldendu** musika ekipo eta bozgorailuak, telebistak eta abarrak ate eta leihoetatik.

- Gaueko **22:00etatik** aurrera; **murriztu** gutxieneko mailara musika eta soinua; zarata sortzen duten gailu guztiak itzalita egon behar dute 24:00etatik 10:00etara bitartean.

Beste zarata mota hauek ekiditea komeni da:


- Kantu, txistu, oihu eta abarrak sortzen dituztenak.
- **Ate irristatzaile edo pertsianak** etengabe **itxi eta irekitzeak** sortzen dituenak.
- Lonja barruan burutzen dituzuen jarduerak kanpoan eta inguruetan egiteak sortzen dituenak.
- Lonjaren sarreran motodun ibilgailuek sortzen dituztenak.

Horrez gain, har ezazue kontuan:

- Hobe da **multzo txikitik** sartu eta irtetea lokaletik, ez denak batera, hartara jende kopuru handia pilatu daiteke kanpoaldean, eta horrek sortzen duen zaratak bizilagunak gogaitu ditzake.
- **24:00etatik** aurrera, lonja hutsik eta aktibitate gabe egon behar du. Ordu horretatik aurrera lonjan geratu nahi izatera, soilik asteburuan egin ahalko litzateke eta, betiere, aurretiaz alboetan edo goian dauden etxebizitzetako oniritziarekin.
- Aukeran, hobe da **argizko txirrina** (kanpoko botoia sartzatzean, lonja barruan argia pizten duen horietakoa), soinuzko txirrina baino.



SUPER LONJEZ



INTSONORIZAZIOA

Lonja intsonorizatua egotea benetako abantaila da, ingurukoekin bizikidetzatza egokia osatze aldera. Edonola ere:

- **Ez ezazue** lonja papera, kartoa, arrautza-kaxa, poliestireno hedatua (kortxo zuria) edo erraz erre daitekeen beste inolako materialen bidez intsonorizatu.

MASKOTAK

Animaliek ezin dute bakarrik egon lonjan, bertan inor ez dagoelarik.

Animaliek ezingo dute, inolaz ere, gaua lonjan eman.

ASEGURUA

Lonjek **erantzukizun zibileko aseguru**a izan behar dute, eguneratua eta indarrean dagoen polizarekin.

Laburbilduz, kontua besteekiko eta inguruarekiko errespetuzko jarrera edukitzea da. Hartara, finen lonja ixtea eragin dezaketen gatazka eta arazoak ekidin daitezke.

Zuen aisialdia eta lonja zuen kasa kudeatzera animatu nahi zaituztegu, betiere ere modu arduratsu, dibertigarri eta errespetuzkoan.



DROGEI BURUZKO ERABAKIAK

- Lonjak aisiarako espazioak dira, eta inguru hauetan, baliteke drogak kontsumitzea. Haien gainean hitz egitera animatzen zaituztegu eta batzarrean erabakitzera zein portaera jarraitu nahi duzuen zuen lonjan, pertsona guztien erabakiak errespetatuz. Vitoria-Gasteiz Udaletik animatzen zaituztegu lonja bai legezko bai legez kanpoko drogarik gabeko espazioa izatea adostera, eta erretzen ez duenarentzako errespetuagatik eta guztien segurtasunagatik, auzokideak barne, kerik gabeko espazioa ere izatea. Drogak kontsumitzea edo ez erabaki pertsonala da, era librean eta pertsona helduek ondo informatuta hartu behar dutena, eta plazerak eta bere erabilerak eragin ditzakeen arazoak baloratu ere egin behar da erabakia hartzeko.
- Adingabeak bazarete, edo lonjan pertsona adingaberen bat badago, kontuan izan behar da guztiz garatu ez diren pertsonengan drogak kontsumitzeak arriskuak sortzen dituela. Legezko drogak pertsona adingabeari ematea administrazio bidean zigortuta dago; eta ilegalak badira delitua da beti, gainera astungarri penal bat da.

SUPER LONJEZ



ADI EGON!
EN VUESTRA
LONJA

BESTE BALIABIDE BATZUK

Gazteen Argibideetarako Udal Bulegoa, OMIJ

Plaza Berria 1 behea

Tfnoa: 945 161 330

E-maila: coordinaomij@vitoria-gasteiz.org

www.vitoria-gasteiz.org/gazteria

Gazteentzako sexualitate aholkularitza ASEXORIA

Landatxo gizarte etxea

Santa Maria 4

Tfnoa: 945 161 583

E-maila: asexoria@vitoria-gasteiz.org

www.vitoria-gasteiz.org/asexoria

Gazteentzako aholkularitza psikologikoa PSICOASESORIA

Landatxo gizarte etxea

Santa Maria 4

Tfnoa: 945 161 904

E-maila: psicoasesoria@vitoria-gasteiz.org

www.vitoria-gasteiz.org/psicoasesoria

Lonja Laket programa, Ai Laket!! elkartea

Errementari kalea 88 behea

Tfnoa: 945 231 560

E-maila: lonja@ailaket.com

www.ailaket.com



www.vitoria-gasteiz.org/gaztelonjak